

IDAZLEAK ELIKATZEN DUENA

Idazleen artean ohiko eztabaida edo hizketako aitzakia izaten da euskal literaturak sistemarik ba ote daukan. Ulergarria den bezala, erakundeek irakurketa sustatzeko batere ganorarik ez dutela eta antzeko kexak azaltzen dira. Eta gure literaturak sistemarik ez daukala ateratzen dugu ondorio.

Alabaina, idazlea sare ekonomiko handi baten oinarria da, eta hainbat lanbideren euskarria.

Hona hemen literatura sistemarik ez daukan hizkuntzaren idazleak egindako lan batek zein eta nor elikatzen duen liburuaren ekonomia sisteman...

Argitaletxeak

- irakurle profesionala
- testu zuzentzailea
- maketatzailea
- ilustratzailea
 - azala, barne irudiak
 - (idazleak eta ilustratzaileak elkar elikatzen dute maiz)
- promozio arduraduna
- editorea

Aretoak

- aurkezpenerako aretoaren jabe den erakundea
- aretoko arduradun teknikoa

Prentsa idatzia

- kazetariak (prentsaurrekoa, elkarrizketa)
- argazkilariak
- kritikariak

Irratiak

- kazetariak (prentsaurrekoa, elkarrizketa)
- kazetari aditua (programara joanda)
- estudioko teknikaria (programara joanda)

Telebistak

- kazetaria (prentsaurrekoa, elkarrizketa)
- kameralaria
- soinu hartzailea
- saio bereziak (Sautrela)
- elkarrizketatzailea
- irakurle profesionala
- kameralaria
 - argiztatzailea
- soinu hartzailea

panpinatzailea (makillajea)
produktorea

Paper industria

- baso jabea
- baso ustiatzailea
- egur garraiolaria (itsasontzi, tren, kamioi)
- paperola
- paper inportatzailea
- paper saltzailea (libururako zein opari gisa biltzekoa)
- zorro saltzailea (dendaren poltsa)
- plastiko saltzailea (dendaren poltsa)
- kartoizko kutxa saltzailea (banaketarako)

(tituluak baino, tiradak kontabilizatu behar dira industria honi idazleok ematen dioguna azaltzeko. Itzulpenak kontabilizatu gabe, 300 titulutik gora argitaratu ziren euskaraz 2019an, genero guztietan. Tiradak oso desberdinak izaten dira, nobelari tirada handia dagokio, poesiak tirada urria izaten du, H eta G literaturak handia... Tituluko 400 ale inprimatu zirela suposatuko bagenu, esan genezake idazleok 120.000 liburu eginarazi genituela gure testuekin... Batez bestekoa handiagoa edo txikiagoa izan, milaka eta milaka libururen lana ematen diogu urtero euskal idazleok paperaren industriari)

Inprenta

- bulegaria
- makinista
- tinta saltzailea
- koadernatzaileak (inprentarenak edo kanpokoak)

Plataforma digitalak

- maketatzailea
- ebook saltzailea

Banatzaileria

- almazen arduraduna
- almazeneko langileak
- garraiolaria

Liburudendak

- saltzailea

Liburutegi publikoak

- zuzendariak
- katalogatzaileak
- liburuzainak
- gordegietako langileak
- liburutegietako hornitzaile teknikoak

liburutegietako garbitzaileak
liburutegietako goardak

Udal irakurle taldeak
udaleko kultura saila
gidaria

Aldizkari bereziak
Idatz&Mintz, Maiatz, Hegats, Behinola, Erlea...
erredaktoreak
kolaboratzaileak
paper saltzaileak
inprentak
garraioak
liburudendak

Agenteak
idazleon agenteak

Liburu Feriak
antolatzen dituzten erakundeak
standak alokatzen dituzten enpresak
soinuteria enpresa
argiteria enpresa
editorialak
editorialek kontratatutako aldiko saltzaileak

Udalak, aldundiak, gobernuak
literatura sariak
irakurle profesionalak
epaimahaikoak
saria emateko zeremonia
saria publikatzen duen argitaletxea

Kantagintza
poemen bitartez eta berariaz eskatutako testuez
(idazleak eta kantariak elkar elikatzen dute maiz)

Antzerkia
(Antzerkirako idatzi izan ez diren obren adaptazioen bitartez: Garo usaina, Alostorrea, HARRIZKO ARESTI HAU, Iholdi, 110 streeteko geltokia, Kutsidazu bidea Ixabel, Gabrielen lekua...)
ekoizlea
egokitzailea
zuzendaria
dekoratugilea
aktoreak
talde teknikoa
antzokia

Zinema

Ehun metro, Hamaseigarrenean aidanez, Kareletik,
Lauaxeta, Diot Gabriel Aresti...

ekoizlea
egokitzailea
zuzendaria
eskripta
kamera
soinu hartzailea
laguntzaileak
dekoratugilea
aktoreak
jostuna
panpinatzailea
talde elektrikoa
estudioak
kartelgilea
film banatzaileak
zinema aretoak
telebista

Hezkuntza

Haur eta Gazte literaturaz bereziki
irakasleak
ipuin kontalariak (ez beti edo denak, jakina)

Hizkuntza

hizkera finkatuz eta aberastuz
Ereduzko Prosa Gaur:
13,1 milioi hitzez, 2000-2006 bitarteko 287 liburuz
filologoak
hiztegegileak
editorialak
irakasleak
hizkuntzari aplikatutako teknologia berrietako enpresak
euskaltzaindia

Mundua

itzultzailea
editorea
euskaratik itzulitakoa hartzen duen hizkuntzaren liburu
sistema osoa

Ondare ustiagarri bat

gure produkzioa jabetza publiko bihurtuz
ondorengorik gabeko edo testamenturik gabeko kasuetan
idazlea hil eta 80 urtera kasu bietan Espainian
(1987 baino lehen hildakoentzat), eta 70 urtera
Frantzian.
Etxepare, Oihenart, Juan Antonio Mogel, Bizenta Mogel,
Etxahun, Otxalde, Xaho, Duvoisin, Elizanburu, Bilintx,

Webster, Zaldubi, Otaño, Etxepare Bidegorri, Constantin,
Domingo Agirre, Iraola, Urruzuno, Lopez Alen, Kirikiño,
Gregorio Mujika, Lizardi, Lauaxeta, Gurutz Sarasola,
Manezaundi, Zubimendi, Mirande eta beste hainbaten obrak
edonoren eskura daude -nobela, ipuin, poema, bertso,
artikulu- zernahi erabilera ekonomiko egiteko.